



DANTZA PLAZAN

Emilio Xabier Dueñas

Gure gizartean dibertsiorako aukera zabala dagoela ezin uka, baina ez da hori hala izan beti; garai bateko gizarte tradizionalak jai-egunetako bailearen zuen denbora-pasa eta dibertsio bide nagusia. Garaiak aldatu badira ere, giza-harremanak, funtsean, hor dirau lehen bezalatsu, nahiz eta beste parametro batzuekin izan. Lehengo leku beretan ematen dira: plazan, zelaian nahiz mendian, ermita baten aurrean edo parrokian, frontoian... familiakoak nahiz auzokoak elkartzen diren ospakizunetan ere eman daiteke. Eta une beretan: zaindari-festetan, aldizkako zelebraziotan edo urtemuga partikularretan.

Hori hala izanik ere, aktibitate horiek gauzatzen diren lekuak edo haien entretenimendu-funtzioak alda daitezkeen bezalatsu, XX. mendean eta XXI.aren hasieran bide berriak ari dira zabaltzen: bide horiek dantzaren irakaskuntza, transmisio eta dibertsioari dagozkie, eta espazio publiko nahiz pribatua bereganatzea bilatzen dute, batzuetan bertaratzen diren abilitadeari arreta jarritz eta beste batzuetan, ostera, inportantzia kenduz.

Harmonia onean egin dute bidea, batzuetan elkar tapatuz ere bai, erromeriak lehendabizi, berbenak gero, tartean *txitxarriloak* ere bai... eta azkenik "dantza plazan" deitzen diogun horrek (dantza-plaza, plazan dantza, dantza plazetan), izan ditzakeen aldaera guztiekin (izan linguistikoak, izan aktibitateen ingurukoak). Esamolde horietatik "erromeria" da oraindik ere sarri erabili ohi duguna, nahiz eta esanahi kontzeptuala, jeneralean, ez den lehengo bera; aldaketa handiak eman baitira aspaldiko urteetan, eta beharrezkoa da haien berri ematea.

Aipagarria iruditzen zaigun aldaketa horietako bat, eredu koreografikoan antzeman dezakegu. Hasieran



Donostiako Boulevardeko musika kioskoaren ondoan dantzan. SNN

berezkoak edo une historiko jakin batean onartutakoak ziren dantzak eta baileak egiten baziren ere, orain egiten direnak klase askotako jatorrien nahasketa dira, esate baterako: Larrain Dantza, jauzi bat, Jota bat eta moldatutako hungariar dantza bat leku berean dantzatzen direnean, Donostiako Boulevardean, esaterako. Batzuetan, leku horiek ez dute belaualdien arteko parekotasunik: leku batzuetan gazte-jendea da harremankin eta jarduera fisikoarekin disfrutatzen duena, eta beste batzuetan, aldiz, helduak dira.

Bada beste aldaketa bat ere: lehengo transmisio-bideak ahozkoak eta belaualdi batetik besterakoak baziren, oraingo ikasketak dantza taldeetan ematen dira, edo dantza-akademietan, edo Oinarrizko Hezkuntza arautuan, besteak beste. Horretarako, hainbat sistema audiobisual erabiltzen dira hasieran, gero, bukaeran, orain arte behinik behin, dantza-irakaslearen eta bere ikasleen aurrez aurreko kontaktura ailegatzeko,

ekintza gauzatzen den espazio fisikoa. Jende sail handiak ala txikiak elkar daitezke halakoetan.

Aktibitate horretan, aldi berean, eta batzuetan (seguru asko, inplizituki), espektakulu ere izan ohi den horretan, oinarrizko lau ezaugarri aipa genitzake (garai historikoak eta maila didaktikoak sinplifikatuz): aktibitatea gauzatzeko erabiltzen den espazio fisikoa (kale eta plazak, lokal pribatuak eta beste jokaleku probisionalak); erabiltzen den teknologia (haririk gabeko megafonia); parte hartzen duten musikariak, produkzioei eta norbere konposizioei lotuak; eta dantzarien predisposizio eta ezagutzak, ez denak maila berekoak.

2015ean Oiartzunen izango diren Jardunaldietan, besteak beste, ondoko atal teorikoak landuko dira (haien osagarri izango diren aktibitate praktikoko ahaztu gabe): pedagogia ildok, eboluzio historikoa, garapen sozio-kulturala, eta erabiltzen diren *on line* bidezko teknika eta soluzioak.

KONTZERTUAK SOINUENEAN

UDAZKENEKO KONTZERTUA

2015eko urriaren 17an - 18:30etan Auzokalte Elkartean

GRUPO KAÑACHAMA

Txile



Guztia junta militarren diktadura garaiko urte nahasietan esnatu ginenean hasi zen. Faxisten poza, desagertutakoak, torturak, gure herrian eta bertako biztanleengan sekula sendatuko ez diren zauriak utzi dituzten deabru gizakiak.

Isilarazita, eskubiderik gabe eta auzipetuta, arteak eskaintzen dituen tresnak aukeratu genituen bizitzera behartzen ziguten bizitza beldurgarria azaltzeko. Musika, eskultura, olerkia, literatura, antzerkia, izan ziren herriak diktadore hiltzaileak eta haren lagunek ezarritako uztarriaren aurka erabili zituen espresioak.

Bildu ginen eta gure herriaren erraietatik jotzen eta kantatzen hasi ginen, gure txiletar gizartearen benetakako historia azaltzen, giza eskubidekin batera ahaztua izan zen hura azaltzen. Gure errepertorioa gerorrek

sortutako doinuek, bertako herri tradiziotik hartutakoek eta gure herrira ezkutuan iristen ziren erbesteratutako musika taldeen doinuen bertsioek osatzen zuten.

Serena-koak gara, Txileko iparraldea, Atacama-ko hegoaldea, Elqui-ko harana. Txile iparraldetik hegoaldera zeharkatu genuen, gogoeta soziopolitikoan tematuz, herri elkarteetan eta kalean joaz, baita mikrobus eta antzokietan, musikari eta abeslari herrikoien gogoia bizirik eusten.

Kultur deserria aukeratu genuen eta Txiletik atera ondoren, Kañachama kontinente arteko musika bidaia abiatu genuen. Honek Peru, Bolivia, Ekuador, Brasil eta Arabiar Emirerrietan barrena Iruñara errotzera ekarri gaitu. Horrela hasi da gure sustraiak ideia eta joera berriekin

uztartzen dituen aro eta, aldi berean proiektu, berria. Taldearen partaideak aldatzen joan dira momentuan lortu nahi izan den musika helburuaren baitan eta emaitza gerorrek sortutako doinuz osatutako bi diskoren ekoizpenean jasota geratu da.

Kañachama-ren eginbehar musikalen oinarrietako bat Andeetako kulturaren bilatzea da. Bere tradizioko hoberenean zentratzeaz gain, taldearen musika Hegoamerikako herrien tradizio ezberdinen eraginaren ondorioa da.

Gaur egun taldea Kristian Guerrero, Héctor Guerrero eta Javier Ignacio Larrayoz “Larri”-k osatzen dute. Beti soka, haizea, perkusioa eta ahotsa oinarrian izanez, taldeko musikariek soinu-tresna ezberdinak jotzen dituzte.

Kontzertuaren aurkezpena Patagoniako hegoaldean abiatu eta Karibe afrolatinora doa, bidaiaren hots eta ahotsek sortzen dituzten emozio eta giroak partekatuz, herri bakoitzeko erritmo eta soinu-tresnak erakutsiz, beti Andeetako erreferentzia mantenduz.

Joaldi bakoitzaren aurretik inguru historiko, geografiko eta soziokulturala agertuz azalpen labur bat izango da.

ETA GOIZEAN

KONTZERTU DIDAKTIKOA

Txileko Musika Herrikoia

Lekua: Tornola kalea, 6
20180 Oiartzun

Eguna: 2015-10-17

Ordua: 11:30

Arratsaldeko kontzertuaren aurretik, **Kañachama** taldeko musikariek haurrentzat saio berezia eskainiko dute. Era honetan hurrek ere Txileko musika herrikoia gehixeago ezagutzeko aukera izango dute.

BEHI BIDEKO ANDERE XURIA



Pantxix Bidart:

Kantuan, gitarrarekin eta cavaquinhoa jotzen entzungo dugu.



Marie Hirigoien:

Kantuan eta zeharkako flautarekin ariko da.



Mirentxu Agerre:

Kantuan eta pandero mota ezberdinak jotzen ariko da.


Behi Bideko Andere Xuria, edo bertako partaideek laburtzen duten bezala BBAX, iparraldeko hiru kantarik osatutako taldea da Horiek dira Mirentxu Agerre, Marie Hirigoien Bidart eta Pantxix Bidart.

Nahiz eta formazio ezberdinetan aritzen diren, hirukote, laukote edo ganbara orkestrarekin lagunduak, Oiartzunen hirukotea izango da.

Marie Hirigoien Bidart-ek tesi lanerako bildutako artxiboetatik abiatuta sortu dute beraien erreperatorioa. Kontuan hartu behar da lan horretan 1897 eta 1990 artean bildutako euskal kantu monodikoaren analisia egin zuela Mariek. Aztertutako kanta horietako asko gaur egun ere entzunik dira, baina beste batzuek ezkutatuta geratu dira denboraren lanbro artean.

BBAX emeki emeki euskal kantu-tegiko zenbait kantu zahar berrorkestratzen ibili da. Lehen esan bezala, batzuk kasik ahantziak dira, beste batzuk berriz beti modan daudenak dira.

Helburua gaurko erreperitorio bera kolore desberdinez lantzea dute. Horretarako herri memoriatik hartutako abestia molde ezberdinetan lantzen dute, era artistikoan jolasten dira abesti horrekin.



AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Ergoien auzoko Auzokalte elkartearen izango da, kontzertua bezala. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Afaltzeko lekua izateko Soinueneara deitu eta erreserba egin.

Afaria + Kontzertua: 20 euro



kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

HERRI MUSIKAREN JARDUNALDIAK 14: DANTZA PLAZAN

AZAROAK 14, larunbata

10:00. Mintegia Ergoienko Auzokalte elkarteko aretoan: DANTZA PLAZA

10:15. Sabin Egiguren

11:00. Patxi Perez

12:00. Juan Antonio Urbeltz

12:45. Antònia Oliver Martorell

14:30. Bazkaria

16:00. Mahai ingurua

Moderatzailea: Xabier Etxabe

Joseba Altube (EDB)

Antònia Oliver Martorell

Iparraldeko DB

Gasteizko Folklore Akademia - Musika Etxea

Aiko

19:30. Emanaldia Oiartzungo Udaletxeko Areto Nagusian: ES REVETLERS Mallorcako taldea

AZAROAK 15, igandea

Egun honetako ekitaldiak Donostian izango dira.

10:00. Dantza tailerra Donostiako HERRI DANTZA taldearen egoitzan: Mallorcako plaza dantzak

12:00. Dantza plaza Donostiako bulebarrean: Patxi eta Konpania

14:30. Bazkaria

BIOLIN TALDEA KALEJIRAN

Lehenengo abuztuan izan ziren Oiartzunen Xanistebanak. Herriko festa nagusiak diren Xanistebanen egitarauan era ezberdinetako musikak izaten dira eta azken urteetako ohitura jarraituz aurten ere herri musikari eskaintzen zaion atalean Oiartzungo Herri Musika Eskolako ikasle eta irakasleak hainbat ekitalditan aritu ziren.

Aurreko urteetan kaleak alaitzen ibili diren dultzainero, xiro-larru jole, albokari edota pandero eta danbor joleei biolin joleak gehitu zitzaizkien. Gure herriko kalejiretan ohikoak ez diren biolin joleak abuztuaren 5eko eguerdian ibili ziren Oiartzungo kaleetan. Beraiek doinua xirula, xiro-larru edota albokarekin lagunduta jotzen zuten bitartean panderoarekin ari zen bikoteak erritmoa nabarmentzen aritu ziren emaitza ederra lortuz.

Irailean hasi den ikasturte berrian Oiartzungo Herri Musika Eskolan hirugarren ikasturtez jarraian eskaini da biolina jotzen ikasteko aukera. Bertan adin ezberdinetako 14 ikasle ari dira Arkaitz Miner irakaslearen aholkuak jasotzen.



Biolin jotzaileak xirula, xiro-larru eta pandero jotzaileek lagunduta Oiartzungo kaleetan Xanistebanetan egin zuten kalejiran. J. IRIGOIEN

UDALEKUAK SOINUENEAN

Aurtengo udan Soinuenean bisitari kopuruak nabarmen egin du gora. Alde batetik turista gehiago izan ditugu gure artean. Ohiko bihurtu diren Madrildar eta Kataluniarren bisitez gain munduko bazter ugariatako turistak izan ditugu gure artean, Israel eta Brasilekoak esate baterako.

Dena den, bisitari kopurua igotzearen arrazoi nagusia Oarsoaldeko udalekueetan zeuden haur eta gazteak Oiartzungo inguru honetara etortzean dago. Adin ezberdinetara egokitutako ekintzak antolatuta, goiza jolastuz ikasten pasatzeko aukera izan zuten Oiartzun eta Pasaiatik etorri ziren neska mutikoek. Batzuk erakusketan jarriak dauden soinu-tresnak entzunez jolasten aritu ziren, beste batzuk dantzan, eta denbora gehien pasatzeko aukera izan zutenek ondoren etxera eraman zituzten soinu-tresnak egin zituzten.



Oiartzungo gazteak egin berria zuten burruna probatzen. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 492
Antolatutako taldeak: 14

Bisitari kopurua urrira arte: **48980**

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16427

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org

